



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

PRENTSA DOSSIERRA

Gazteen Euskal Behatokiak


gazteen Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilpenari buruzko datuak aurkezten ditu

EAEko ia gazte guztiak telefono mugikorra dute eta lau gaztetik hiruk internet egunero gutxienez ordubetez erabiltzen dute

2011ko azaroaren 7 eta 20a bitartean Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren XI. Astea ospatzen da. Hori dela eta, Gazteen Euskal Behatokiak, EAEko gazteek Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilpenari buruzko datuak aurkeztuko ditu.

EAEko gazteen %99k telefono mugikorra dute Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerketaren arabera. Ikerketa hori 15-29 urteko 1.500 gazteei egindako galdetegian oinarritzen da.

%72k egunero mugikorrez deiak egin eta jasotzen dituzte, %51k egunero mezuak jaso eta bidaltzen dituzte, %27k egunero erabiltzen dute musika edo irratia entzuteko, %11 egunero internetera konektatzen da mugikorra erabiliz, %8k egunero argazkiak eta bideoak egin eta banatu egiten dituzte eta %7k egunero edo ia egunero mugikorrarekin jolasten dute.



Neskek mutilek baino gehiago deitzen dute, baita mezu gehiago bidali ere. Mutilek, ostera, neskek baino gehiago jolasten dute mugikorrarekin eta internetera gehiago konektatzen dira mugikorra erabiliz



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud




Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

Adinak aurrera egiten duen heinean musika eta irratia entzun, argazkiak egin eta banatu eta mugikorrarekin jolasten duten gazteen kopurua handitu egiten da.

Gastuari dagokionez, gazteen erdiak (%53) hilabetero 20 euro baino gehiago gastatzen ditu mugikorrean. Neskek mutilek baino diru gehiago gastatzen dute mugikorrean eta adinak aurrera egiten duen heinean gastuak ere gora jotzen du.

Gastua gastu, hamar gaztetik zazpi (%71) gastu hau berak ordaintzen dutela diote. Kasu honetan adina erabakigarria da. Izan ere, 20 urtetik beherakoek artean %35k berak ordaintzen dute baina 25 urtetik gorakoek artean %95 da.

Interneti dagokionez, gazteen %74k internet astero gutxienez zazpi orduz erabiltzen dutela diote, hots, ordu bete eguneroko gutxienez. Heren batek (%33) internet astero hogeit hamar ordu baino gehiago erabiltzen duela dio, 2008ko datua (%9) zen bitartean.



Interneten eguneroko erabilerara jotzen badugu, gazteen gehiengoak eguneroko edo ia eguneroko internet erabiltzen du mezu elektronikoak bidali eta jasotzeko eta sare sozialetara konektatzeko (%60 eta %55, hurrenez hurren).

Sare sozialen sarpin-gradua handiagoa da gazteagoak direnen artean; 20 urtetik beherakoek %72k eguneroko erabiltzen dituzte, eta 25 eta 29 urte bitartekoek %39k. Sare sozialetara konektatzea ohikoagoa da nesken artean (%58) mutilen artean baino (%52).

Gazteen %39k txateatu egiten dute edo Messenger erabiltzen dute eguneroko, ohitura hau hedatuago dago gazteagoak direnen artean.

%36k internet eguneroko erabiltzen dute ikasteko, ikasketetarako erabilgarria den informazioa bilatzeko edo *on-line* ikastaroak egiteko. Ohitura hau zabaldagoa da 20 eta 24 urte bitartekoek artean.



%33k internet egunero edo ia egunero erabiltzen dute prentsa irakurtzeko. Kasu honetan, mutilek neskek baino ohitura handiagoa dute (%42 mutilen artean eta %24 nesken artean). Erabilera hau handiagoa da 19 urte baino gehiago dutenen artean.

Hamar gaztetik hiruk (%30) internet egunero erabiltzen dute lan egiteko edo lanaren inguruko inguruko informazioa bilatzeko. Portzentaje hau handiagoa da lan egiten dutenen artean (%37) eta are handiagoa da (%46) lanean eta ikasten dabilzantentzat.

%21ek egunero aisia, kultura, kirolak edo bidaien inguruko informazioa bilatzen dute. Ohitura hau nagusiagoa da gizonen artean eta 19 urtetik gorakoen artean.

%20k egunero jokoak, musika eta pelikulak behera kargatzen dituzte. Honen inguruan ere gizonak nagusitu egiten dira, eta 25 urtetik gorakoak ere.

%19k egunero lan-eskaintzen inguruko informazioa bilatzen dute. Erabilera hau zabalduago dago 20 urtetik gorakoen artean eta nagusia da langabezia daudenen artean (%57).

%18k egunero musika entzuten dute eta pelikulak ikusten dituzte *streaming* bidez. Behera kargekin bezala, ekintza hau zabalduago dago gizonen artean eta 25 urte baino gutxiagokoen artean.

Gazteen %10ek baino gutxiagok beste hainbat ekintza egiten dute, hala nola, *on-line* jolastu (%8), blogetan parte hartu (%4), banku-gestioak egin (%3), Skype bidez dei telefonikoak egin (%3), *on-line* erosi (%1) edo atxikipen kanpainetan parte hartu, sinadurak jaso eta emariak egin (ez da %1era heltzen).

